

– Abenduan –

Badator... Ni non nago?

Arantzazu, 2016ko abenduaren 17an

1. Hasiera (Poema)

Esperantzaren mendi goietan,
ezinaren bide galduetan,
oihu bat entzun da ozen eta sarkor:
«Badator...».

Gure bihotzen samin beltzetan,
gure barru aztoratuetan,
oihu batek jo du ozen eta sarkor:
«Badator...».

Gure harreman agortuetan,
ulertuezin izoztuetan,
oihua berriro ozen eta sarkor:
«Badator...».

Gure gizarte zauritu honetan,
zokoratuen negar-penetan,
garrasi hautsia, ozen eta sarkor:
«Badator...».

Ate itxien lurraldeetan,
hesi jasoan alanbradetan,
non pobreak bihurtu ditugun zabor:
«Badator...».

Gure Elizaren horma zaharretan,
garai joanen goroldiotan,
oihu ahul bat intziriz minberakor:
«Badator...».

Eta Jauna ur bizitan dator,
ur oparo eta handitan
bizidun eta emankor,
bizi gaitezen, atope bizi,
«badator...».

Maitasunaren ur txikietan,
Eguberriko isiletan,
Amaren beso ahuletan...
munduaren gauean sarkor:
«Badator...».

Nor dator sarkor?
Zertara dator emankor?
Non dator, baletor?

(Isilunea utzi eta Berri Onaren berri emaile... kanta daiteke)

2. Kantua

Berri Onaren berri emaile, agur zuri, Abendua;
esperantzaren atari zara, iraupen luzez ondua;
betiraunera begira jartzen diguzu adimendua,
kulplitu zaren hortan bait zara kunplikizun-agindua.
Berri Onaren berri emaile, agur zuri, Abendua.

Salbamenaren egun alaiak jadanik sortuta dagoz;
behingoz erabat osatzeko den erreinuaren zain gagoz:
behar zuena etorria da, baina ez etortze osoz,
etopri zena etorkizun da esperantzaren itsasoz.
Salbamenaren egun alaiak jadanik erneta dagoz.

Negu gorritik udaberria atera ohi den antzera,
halaxe goaz geldi ta nekez aro berrian sartzera
itxuraldatuz, eraberrituz; justiziaren kolpera
jende ta mundu egokituko gara Jaunaren xedera.
Negu gorritik udaberria atera ohi den antzera.

Etengabeko abendu baten horrelaxe bizi gara,
Jaungoikoaren erreinua noiz osatuko den hartara;
espero eta nahi genuena jadanik etorri bada,
bere legamiz mundu guztia behar du ondu ta para.
Etengabeko abendu baten horrelaxe bizi gara.

(Isilunea...)

3. Jainkoaren Hitza

Isaias profetaren liburutik (52, 7-10).
Bai ederra mendi gainetan albistaria etortzen ikustea!
Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen,
askapena aldarrikatzen.
Sioni diotso: «Errege da zure Jainkoa!»
Zure begiraleak deiadarka!
Poz-oihu dagite denek, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen.
Ekin denok poz-oihuka, Jerusalemgo horma eroriok,
Jaunak bere herria kontsolatu baitu, Jerusalem askatu.
Bere jainkozko indar paregabea azaldu du Jaunak
nazio guztien aurrean.
Mundu-bazter guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren garaipena.

(Is 62, 10-12)

Irten, irten hiritik kanpora, prestatu bidea herriarentzat!
Berdindu, berdindu galtzada, kendu harriak!
Hona zer oihukatzen duen Jaunak lur-bazterretaraino:
«Esan Sion hiri ederrari: Hara, badator zure salbatzailea!
Berekin dakar garaipen-agiria, berak askaturiko herria».
«Herri santu» deituko diete, «Jaunak askatuak».
Eta zuri, Jerusalem, «hiri desiratu» deituko dizute, «zapuztu gabeko hiri».

4. Kantua (errepikatu bost-sei bat aldiz)

Nire bihotzak bake

Hitzak: Iñaki Beristain
Doinua: Taizé

Musical score for 'Nire bihotzak bake'. The score is written in G major (one sharp) and 4/4 time. It consists of two staves of music with lyrics underneath. The first staff has a repeat sign at the beginning. The second staff starts with a measure rest marked with a '5' above it.

Ni - re bi - ho - tzak ba - ke Jain - ko - a - gan. Be - ra bai - tut sal - ba - men.
tu - rri a - gor - tu - ak ez bi - la - tu. Jau - nak du ur bi - zi - a.

⁵
Bai, Jain - ko - a - gan, ez bes - te i - non, dau - kat nik a - tse - den. I
Jau - na - re - gan - dik da - toz ur o - nak, han - di - xe gra - zi - a.

5. Barne-lana galderaz edo aitortzaz

(Isil-une luzeak eta musika suabea tartekatuz)

- «Badator...» entzun dugu ozenki...
- Ba ote dator?
- Eta... baletor?

- Ezin dut sinetsi badatorrela...
- Ez dut sentitzen bere etorreraren beharrik...
- Aspaldian ez dut inor espero...
- Behar al dut inor etortzerik?

- Barrua egarri daukat, zerbaiten faltaz...
- Barrua egarri, beharbada Norbaiten faltaz?...
- Zergatik barruko hutsunea? Zergatik gehiagoren beharra?
- Behar al dut inor etortzerik?

- Zer eskatuko nioke datorren Jaunari?
- Zer berritzea nahiko nuke?
- Inolako desiorik pizten al zait barruan?
- Behar al dut inor etortzerik?

- Uretan dator, emankor dator, bizi-emaile dator...
- Nire barruko lehorteak bustiko ditu biziaz.
- Iturri isil horretan, Eguberriko Haurra dator... Zuretzat! Niretzat!
- Behar dut norbait etortzea, ezta?

- Sekula entzun gabeko promesa berria egiten zait.
- «Herri santua» naiz, «Herri desiratua», «Herri maitatua»...
- Zergatik ematen zait hau? Zergatik naiz maitatua?
- Promesa beteko balitz! Etorriko balitzait!

6. Sinbolo edo irudiren bat

(Musikak jarraitzen duen bitartean, nahi dutenek uretara hurbildu eta, eskua bustiz, «Aitaren» egin dezakete... Mugimendu eta zarata asko gabe, ahal den neurrian)

7. ZER NAIZ NI ZU GABE. Imanol

(Entzun egingo da kantu hau)

Zer naiz ni zu gabe, maitasun nerea,
zer naiz ni zu gabe, zurezko bihotza:
geldirik dagoen erloju tristea,
zer naiz ni zu gabe, ikara ta hotza.

Zugandik dakit nik, mundua maitatzen
ta guztia dakust gaur zure argitan,
horla iturrian ura da xurgatzen,
zeruko izarrak pozez irakurtzen,
oihuka erantzun, oihuari mendietan,
zugandik dakit nik, bizitzen pozetan.

Zer naiz

Zugandik dakit nik, ta daukat barruan
eguardiz dala egun, urdiña zeruan;
poza ez dagoela, taberna zuloan,
eskutik hartuaz, gaurko infernuan,
agertu didazu maitasun berria,
agertu didazu, luzatuz eskua.

Zer naiz ...

8. Baletor... Badator!

Ai! Baletor...!

Ai! Hau dena egia izango balitz!

Nire bihotzak Jaunarekin topo egingo balu!

Ai! Baletor!

Eta... badator!

Gure barrutietan sator,

azpitik gainera emankor,

leialtasunean jator,

dena berritzeko Hitz eder dator!

Ai! Baletor!

Ausartuko naiz sinesten,

bihotza jarriko dut amesten,
esperantza pozik abesten,
desio berriak hazten eta hezten...
Ai! Baletor!

Eta... badator!
Belenen etorri zen, Arantzazun dator!
Mariarengan etorri zen, zuregan dator.
Mundua poztu zen, zure mundua poztuko da.
Adiskide, badator!
Poztu zaitez, badator!
Badator edo, hobe, badatorkiZU!

Musika...

Musika...